

Matxismoak hil egiten du. Eta zuk zer egiten duzu?

Ba al da ezer erasokorragorik jendarte erdiaren gorputzen, ideien, estimuen, desioen eta produkzio zein erreprodukzio gaitasunen jabe egiten den sistema bat baino?

(Lily Muñoz, Guatemalako ikertzailea, "Indarkeria Matxista guztiei Aurre egiten diegu Jardunaldiak", Mugarik Gabe, Bilbo 2011)

Ez da posible eraldaketa sozialaren edozein prozesu sortzea, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean alternatibak planteatu edo norbanako zein talde bakoitzak bere berezitasunetik egindako salaketa landu gabe. Genero indarkeria bezala ezagutzen dena sistema eta giza eskubideen bortxaketa sistemiko gisa nabarmentzen da, herrialde guztietako garapen ekonomiko, sozial eta demokratikoaren oztopo moduan.

Horregatik, pertsona bakoitzak honakoa pentsatu behar du: Zer egiten dugu indarkeria matxistari aurre egiteko?

1. Existitzen diren indarkeria ezberdinak identifikatu.

Fisikoa: bultzatzea, objektuak jaurtitzea, erasotzea

Psikologikoa: iraintzea, mehatxatzea, leporatzea, keinuak

Sexuala: Sexu harremanak exijitu edo behartzea, objektu sexual gisa tratatzea

Soziala: Publikoki gutxiestea, entzungor egitea, adiskideengandik urruntzea

Ekonomikoa: Emakumeen aldetik diruaren erabilera oztopatzea eta kontrolatzea

Sinbolikoa: Ez da zuzenean ematen, mundu ikuspegiaren bidez baizik, rolak, eta abar.

Tresnak: lengoaia eta irudikapen kulturalak


Estrukturala: Sistema patriarkatua mantentzen du (gizonezkoen nagusitasuna emakumeen aurrean). Gizarte bateko egitura guztietan erreproduzitzen da (politikoa, ekonomikoa, sozialean eta kulturean).

Emakumeen erailketa emakumeen aurkako zapalkuntza erabiltzen duen mekanismo ezberdinen izebergaren punta da. Ildo horretatik, interesgarria da Johan Galtungek (1998) indarkeriaren inguruan egindako proposamena, indarkeria zuzenaz, kulturalaz eta estrukturalaz osatua dela ulertuz. Hala, batzuk ikusten diren indarkeriak dira, eta besteak "ikustezinak":


*V.Visible: I.Ikusgarria

*V.Invisible: I.Ikusteztina

*Grafikoko beste kontzeptuak: Indarkeria zuzena, indarkeria kulturala eta indarkeria estrukturala



Indarkeria matxistaren "maila" ezberdinak:



Indarkeria matxista ezberdinak identifikatzeko bideo hauek ikus ditzakezu:

<http://www.zurevision.com/aurrekoak/player/bspot.htm>

2. Indarkeriaren arrazoiak ezagutu. PATRIARKATUA

"Patriarkatuaren eraikuntzan maskulinitasun eta emetasunaren arteko diferentzia politikoa askatasun eta onarpenaren arteko ezberdintasuna da". (Carole Pateman, "El contrato sexual", 1988).

<http://www.mugarikgabe.org/blog/2012/12/02/una-vida-sin-violencias-machistas-una-apuesta-de-mugarik-gabe/>

Indarkeria matxistaren aurkako borrokan lanean jarraitzeko gakoak diren bi ikuspegi:

- **Giza eskubideak**, Genero indarkeria bezala ezagutzen dena sistema eta giza eskubideen bortxaketa sistemiko gisa nabarmentzen da, herrialde guztietako garapen ekonomiko, sozial eta demokratikoaren oztopo moduan.
- **Justizia soziala**, ildo honetatik ez da posible eraldaketa sozialaren edozein prozesu sortzea, emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean alternatibak planteatu edo norbanako zein talde bakoitzak bere berezitasunetik egindako salaketa landu gabe.

"Martxan" bideoa ikus dezakezu. Indarkeria matxisten kontrako feministen mugimendua

El Salvador, Guatemala eta Euskal Herriko zortzi emakumeren ahotsen bidez, mundu osoko emakumeek aurre hartzen dioten indarkeria matxista ezberdinen inguruko gogoeta egiten dugu. Horietako bakoitzak indarkeria hauek lantzeko, salatzen eta borrokatzeko modu ezberdinak aurkezten dizkigute, sistema patriarkatua zalantzan jarriz eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunekin amaitzeko estrategia gisa antolakuntza kolektibo feminista proposatuz, batez ere indarkeriekin.

<https://vimeo.com/129426414>

3. Emakumeenganako kontrola ezkututzen duten eta finkatuta dauden ideia ezberdinak zalantzan jarri

Maitasun erromantikoa bezala

"Maitasuna emakumeen opioa izan da, erlijioa masena izan den bezala. Guk maitatzen genuen bitartean, gizonak gobernatu egiten zuten". (Kate Millet)

Derrigorrezko amatasuna

"Emakume guztiak jasotzen dituzte ideiak, baina ez semeak. Gizaki izatea ez da uztaren arabera soilik lantzen den fruitu arbola bat". (Emilia Pardo Bazán).

DANTZAN, erabakitze eskubidearen aldeko lorpen feministak

Euskal Herrian Abortatzeko Eskubidearen garatutako borroka eta lorpen feministen ahotsak jaso eta ikustarazi ditugu. Era berean, emakumeen eskubideen urraketa gisa salatzen ditu erreforma proposamenak, eta jarraitzen duen borroka honen erronkak eta gakoak jasotzen ditu.



<https://vimeo.com/125518050>

Heziketan eta eraikuntzan "neska" edo "mutila" izateak duen ezberdintasuna

"Patriarkatuan femeninotzat ezagutzen duguna ez litzateke izango emakumeak direna edo izan direna, gizonezkoek haiantzako eraiki dutena baizik". (Luce Irigaray).

Sexuen banaketa lanean

Emakumeak etxean geratu behar dira zaintzen, eta gizonezkoek etxerako ogia ekarri behar dute

	ROL REPRODUCTIVO (cuidar)
	ROL PRODUCTIVO (ganar el pan)

Gai guzti hauetan sakontzeko

Indarkeria matxisten eta aurre egiteko estrategien jardunaldien bilduma

<http://www.mugarikgabe.org/blog/2012/01/01/jornadas-violencias-machistas-y-estrategias-para-enfrentarlas-2/>

4. Zure egunerokoa aztertu

"Zapaltzailea ez litzateke hain indartsua izango zapalduen artean konplizeak ez balitu".
([Simone de Beauvoir](#))

Kontuz neomatxismoarekin!

Pertsona askok (gizonek, baina emakumeek ere) berdintasunaren alde daudela diote, baina kausa feministak xehatzeko era guztietako eragozpenak jartzen dituzte. Era honetako esaldiak dira: "Berdinak gara ia", "indarkeria matxistaren salaketa faltsuak daude", "berdintasun legeek gizonezkoak diskriminatzen dituzte", "emakumeak boterean daudenean okerrenak dira", ...

"Lenguaia, hitza, boterearen beste molde bat da, debekatua izan zaigun askoren arteko bat baino ez". (Victoria Sau).

Zer pentsatzen duzu titularren inguruan? "Emakume bat hila agertu da...", "Emakume bat hila"... emakumeak ez dira berez hiltzen. ERAHILTZEN DITUZTE. Imajinatzen duzu horrela

enfokatutako bestelako erailketarik? Zergatik uste duzu egiten dela diferentzia hori?

5. Mobilizatu. Ezagutu indarkeria matxistak errotik deuseztatzeko estrategiak

"Ez dugu nagusiaren etxea desmuntatuko jabearen erremintekin" (Audre Lorde).

Indarkeria hauek salatzeke manifestazioetara joan.

Seguru zure hirian datorren A25ean ekintzak daudela, joan! Zabaldu deialdia zure inguruan!

Bertaratu erailketa matxistak salatzeke kontzentrazioetara. Zure herrian/hirian emakume bat erailtzen duten bakoitzean (24-48 ordotara) salaketa ekitaldiren bat egongo da. Hurbildu, zabaldu deialdia. Ez badago ezer jada antolatuta, zuk zure kolektibotik egiteko aukera azter dezakezu.

Parte hartu indarkeria matxistarik gabeko bizitza libre bat bermatzeko instituzioen ardura betetzea exijitzen duten ekintzetan.

Emakumea bazara bertaratu autodefentsa tailer feministetara. Ikastaro hauetan indarkeria matxistarekiko emakumeen ikuspegia lantzen da, emakumea-objektua-pasiboa izatetik emakumea-subjektua-aktiboa izatera igarotzeko ezagutzak transmititzen dira, emakumetik emakumera. Horretarako tailerrak hezitzaile feministek gidatzen dituzte. Oso garrantzitsua da EMAKUMEENTZAKO AUTODEFENTSA ikastaroak DEFENTSA PERTSONALEkoekin ezberdintzea.

Maitena Monroyk emandako autodefentsa feminista ikastaroa

http://www.feministas.org/IMG/pdf/curso_de_autodefensa_feminista_de_maitena_monroy.pdf

Irakurri, ezagutu zer den feminismoa

<http://www.emakumeak.org/es/cdoc/>

Emakumeen dokumentazio zentroak emakumeen errealitatearen azterketarekiko interesa duen pertsona ororen topalekua osatzen du.

Zure inguruan eraso sexistaren bat ikusi edo ezagutzen baduzu, ekin!

Salatu sozialki indarkeria matxista.

Parte hartu! Ezagutu gai hauek lantzen dituzten inguruko erakunde feminista eta sozialak!

<http://www.mugarikgabe.org/mapaestrategiasfeministas/>

<http://www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/en-la-lucha-somos-muchas/>